


HIRIGENMAP

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri nagusiek, hirigintza eta generoaren gaiaren inguruan egindako lanak eta gero-rako dituzten asmoak ezagutzeko azterlana (2011ko urria)



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

HIRIGENMAP

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri nagusiek, hirigintza eta generoaren gaiaren inguruan egindako lanak eta gerorako dituzten asmoak ezagutzeko azterlana (2011Ko urria)



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia

1.a, 2012ko iraila

Ale-kopurua

150 ale



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio saila

Internet

www.euskadi.net

Argitaratzailea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimategia

Eusko Jaurlaritzaren Erreprografia eta inprimategi Zerbitzua

Diseinua eta maketazioa

EkipoPO

Lege-gordailua

VI 504-2012

Aurkibidea

Sarrera	6
Metodologia.....	10
Azterlanaren unibertsoa.....	11
Galdetegia	16
Prozedura	20
Datu-basea	20
Emitzak.....	24
Galdeketaen unibertsoari buruzkoak.....	25
Berdintasun sailetan lortutakoak	27
Hirigintza sailetan lortutakoak.....	36
Datuak erkatuta lorturikoak	46
Ondorioak	50
Eranskina: udaletako hainbat datu	54
Azterlana eginda duten udalerrien zerrenda.....	55
Azterlanen izen hainbat.....	56
Azken azterlanak noizkoak dira?	57
Azterlanak nork eginak dira?	58
Azterlanen ondorioz interbentzioak egin dituzten udalak	59
Hirigintzako Aholkularitza Kontseilua osatuta duten udalak eta osatu zen urtea	60
Kontseiluetako emakume kopurua.....	61
Emakume elkarteetako ordezkariak kontseiluetan.....	62
Hirigintza eta generoaren gaia tratatu duten kontseiluak	62
Gaiaren inguruan zerbait egitea erabaki duten kontseiluak.....	63
Zer egitea erabaki duten	63

Sarrera

Asko dira azken urte hauetan hirigintza barneratzaile eta parte-hartzaileago baten alde egin duten ahotsak. Gizarte garaikideetan aldaketa sakonak ematen ari dira, soziologikoak, kulturalak, eta baita ekonomikoak ere. Mendebaldeko kulturetan gero eta jakinagoa da gizarte eredu berri baten beharra, ingurumenarekiko, eta gizartea beraren egiturarekiko bestelako harremanak bultzatuko dituen.

Testuinguru horretan, eta hirigintzaren esparrura mugatuz, orain artean bizi izan dugun hirigintza eredu bera ere kolokan jarri da. Gaizki ulertutako hiri-garapen eredu ordez, hiritarra berriro protagonista bihurtuko duen hirigintza eredu berrien aldera jo behar dela defendatzen da, geroz eta gehiago, bai teknikarien zein politikarien artean ere.

Gure gizarte-geografia asko aldatu da azken urte hauetan. Geroz eta zaharragoak gara, geroz eta kultura nahasketa handiagoa dugu, geroz eta indibidualistagoak gara, denborak geroz eta garrantzia handiagoa du baina aldi berean geroz eta gutxiago daukagu hura kudeatzeko aukera.

Lan honen helburua ez da gaiaren inguruko azterketa soziologiko bat egitea, guztion kontzientzian dagoen gaia baita, eta gu baino askoz ere jakitunago direnen ekarpenak egunero gertatzen baitira, baina argi dagoena da, hirigintzak ez dituela aldagai berri hauek modu egokian barneratu.

Baina bada beste aldagai bat ere, historian zehar beti hor egon dena, baina gizartearen garapenak zokoratua izan duena: emakumea. Hirigintzaren esparrura bueltatuta, emakumeek egiten duten hiri-erabilera zokoratua izan da historikoki, eta guztiontzako behar luketen hiri-espazio ugariarik ez du bermatu haren erabilerarako eskubide ezinbestekoa gizartearen zati handi batentzat.

Mendebaldeko gizarte guztietan gertatu den arazo honek ez du Euskal Herrian salbuespenik izan. Ez eta aldaketaren beharraz jabetu, eta haren aldeko pausuak ematen hasterako garaian ere. Botere publikoek, akaso politikiegi bada ere, eman dituzte lehen pausuak hirigintzaren baitako aldaketa honetarako. Geroz eta gehiago dira, hirigintzaren hiritar guztiekiko menpekotasuna aintzat hartuta, parte-hartzea sustatze aldera ekimenak eta neurriak bultzatu dituzten agintariak. Adibide gisara soilik, Legebiltzarrak 2006an onartutako Lurzoruaren Legea, zeinak hiri-plangintzetan parte-hartzea sustatzeko, Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluen sorrera bultzatzen zuen Erkidegoko Udalerrietan.

Aldi berean, ugariak dira genero ikuspegipeko hirigintza azterketak burutu dituzten udalak. Diagnostiko lanak egin, eta guztiontzako hobia izango den hiri batetarrantz eramango gaituen interbentzioak ere burutu dira udal batzuetan.

Ildo beretik, eta lan hauen beharraz ohartuta, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailaren baitako Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak asmoa du Euskal Autonomia Erkidegoko Udalak diruz laguntzekoa, genero ikuspegipeko hirigintza azterlanak burutu ditzaten. Gainera, azterlan horien ondorioz eratorritako interbentzioak ere diruz laguntzea da asmoa. Horrela, Udalek egin beharreko lan honetan bidelagun izateko asmoa du Sailak.

Diru-laguntza hauek deitu aurretik, eta arautuko duten Agindua definitzerako garaian, beharrezkoa ikusi du Autonomia Erkidegoan Udalek aurretiaz egin ahal izan duten lana ezagutzea. Nolabaiteko erradiografia bat egin, eta haren ondorioak diru-laguntzen erabilera eraginkorrena ahalbidetuko duela garbi du Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak. Are gehiago, krisi garai hauetan, baliabideak hain eskasak direnean.

Erradiografia hau burutzeko, hemen aurkezten dugun azterlan hau eskatu zuen Sailak. Lana, Gentzane Goikuria Irigoien arkitektoak, eta haren laguntzaile Aitor Jauregi Larrañagak egin dute, 2011ko iraila eta urria bitartean.



Metodologia

Azterlan honen helburua, Jaurlearitza Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailari, hirigintza eta generoaren inguruan Autonomia Erkidegoetako Udaletan aurrez egin den lana ezagutaraztea da, baina aldi berean, diru-laguntzak deituzko garaian, jarriko dituen baliabideen erabilpen eraginkorrena ahalbidetuko duten datuak ematea ere bai. Hala, jadanik egin diren esperientziak ezagutu, eta haien ondorioz egin diren interbentzioen berri emateaz gain, egiteko garaian sortu diren arazoak, zein gerora begira, gai honen inguruan udaletan dauden grinak berri izatea ere bada azterlan honen helburua.

Horregatik guztiagatik, emaitza kuantitatiboak lortu nahi izan dira (zenbat udalek egin ahal izan duten aurrez genero ikuspegipeko hirigintza azterketa bat, adibidez), baina baita kualitatiboak ere. Denbora-epe murrizketa baina, ez zuen ahalbidetzen aurrez aurreko elkarrizketarik, ez kontrasterako talderik ere. Horregatik, eta datuak telefonoz ahalik eta modu eraginkorrean jaso ahal izateko, udaletara egin beharreko galdetegi bat diseinatu da lehenik. Bertan datu zehatzak eskatzen dira, baina baita bidean aurkitu diren arazoen eta gerorako desioentzako lekua utzi ere.

Datu kualitatiboen lorpenaren inguruan, aipatu beharra dago udal gehienetan galdetegiak, eta honen jatorrian dagoen diru-laguntzen deialdiak izan duen harrera ona. Horrek berak lagundu du, telefono bidezko elkarrizketak izan arren, erantzunez gain, gaiaren inguruko gorabeherei buruzko datuak lortzen, batik bat antzerako esperientziak jadanik burutu dituzten udalen eskutik.

Hauetz gain, Sailak garrantzitsutzat jotzen zuen udal ezberdinetan kontakturako pertsonen datuak lortzea. Alegia, gaiaren inguruan ardurak izan ditzaketen pertsonen erreferentziak lortzea, gerora diru-laguntza beraren kudeaketan lagungarri izango delakoan.

Azterlanaren unibertsoa

Azterketaren objektua edo unibertsoa ezarria izan da, eta nagusiki bi faktoreen ondorioz erabaki da:

- 1) Udal bakoitzean bi sail ezberdinetako datuak jaso nahi izan dira: berdintasun gaietako arduradunenak, eta hirigintza gaietako arduradunenak. Jakina zen, aurrez gai honen inguruko azterlan gehienak, udaletako Berdintasun Sailetatik eragindako ekimenen ondorio izan direla. Normalean, udaletako Berdintasun Plangintzen baita jasota egon ohi da halako azterketak egiteko beharra.

Baina bestetik, ezin ahaztu daiteke, hiriaren gainean ari garela, eta hirigintza sailek behar dutela izan genero ikuspegipeko irizpideak ere beraien egunerokotasunean jorratu behar dituztenak, inoiz guztiontzako hiri bat egia izango bada. Ezinbestekoa genuen hortaz, haien gaiari buruzko datuak jasotzea ere.

- 2) Biztanleak. Autonomia Erkidegoan dauden 251 udalerrietarik gehienak tamaina txikiak dira. Askoren hiri-egiturak ere ez dira oso definituak. Gainera, udalerririk gehienetan baliabide eskasia are handiagoa denez, horrelako azterketak egiteko aukerak txikiak dituzte oraindik. Nonbait muga jarri behar, eta azterlan hau 3.000 biztanletik gorako udalerrietara mugatzea erabaki zen. Udal horietan lortutako emaitzak, horrelako azterlan baten helburuetarako esanguratsuak direla uste dugu edonola ere. Zehazki, 88 udalerririk izan dira galdeketa egin zaienak, INEren 2010eko datuen arabera:


Zk.	Herrialdea	Udalerria	Biztanleak
1	Bizkaia	Bilbao	353.187
2	Araba/Álava	Vitoria-Gasteiz	238.247
3	Gipuzkoa	Donostia-San Sebastián	185.506
4	Bizkaia	Barakaldo	99.321
5	Bizkaia	Getxo	80.277
6	Gipuzkoa	Irun	60.938
7	Bizkaia	Portugalete	47.856
8	Bizkaia	Santurtzi	47.101
9	Bizkaia	Basauri	42.452
10	Gipuzkoa	Errenteria	39.020
11	Bizkaia	Leioa	30.262
12	Bizkaia	Galdakao	29.254
13	Bizkaia	Sestao	29.224
14	Bizkaia	Durango	28.261
15	Gipuzkoa	Eibar	27.378
16	Bizkaia	Erandio	24.294
17	Gipuzkoa	Zarautz	22.658
18	Gipuzkoa	Arrasate / Mondragón	22.011
19	Gipuzkoa	Hernani	19.285
20	Araba/Álava	Laudio / Llodio	18.420
21	Gipuzkoa	Tolosa	18.095
22	Bizkaia	Amorebieta-Etxano	17.969
23	Gipuzkoa	Lasarte-Oria	17.856
24	Bizkaia	Bermeo	17.026
25	Bizkaia	Mungia	16.527
26	Gipuzkoa	Hondarribia	16.464
27	Bizkaia	Gernika-Lumo	16.295
28	Bizkaia	Ermua	16.196
29	Gipuzkoa	Pasaia	15.977
30	Gipuzkoa	Andoain	14.662
31	Gipuzkoa	Bergara	14.637

Zk.	Herrialdea	Udalerrria	Biztanleak
32	Gipuzkoa	Azpeitia	14.305
33	Gipuzkoa	Beasain	13.680
34	Bizkaia	Sopelana	12.527
35	Bizkaia	Arrigorriaga	12.358
36	Bizkaia	Valle de Trápaga-Trapagaran	12.317
37	Gipuzkoa	Azkoitia	11.351
38	Gipuzkoa	Elgoibar	11.324
39	Gipuzkoa	Oñati	10.957
40	Araba/Álava	Amurrio	10.050
41	Gipuzkoa	Zumarraga	10.037
42	Gipuzkoa	Oiartzun	9.947
43	Gipuzkoa	Ordizia	9.758
44	Bizkaia	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	9.724
45	Bizkaia	Etxebarri	9.667
46	Gipuzkoa	Zumaia	9.337
47	Bizkaia	Ondarroa	8.856
48	Gipuzkoa	Legazpi	8.718
49	Bizkaia	Ortuella	8.435
50	Bizkaia	Zalla	8.176
51	Bizkaia	Lekeitio	7.438
52	Bizkaia	Balmaseda	7.366
53	Bizkaia	Muskiz	7.331
54	Bizkaia	Abadiño	7.310
55	Bizkaia	Elorrio	7.252
56	Gipuzkoa	Urretxu	6.957
57	Bizkaia	Berango	6.748
58	Gipuzkoa	Aretxabaleta	6.700
59	Bizkaia	Güeñes	6.473
60	Gipuzkoa	Urnieta	6.145
61	Gipuzkoa	Usurbil	6.013
62	Gipuzkoa	Lezo	5.988

Zk.	Herrialdea	Udalerria	Biztanleak
63	Gipuzkoa	Villabona	5.822
64	Bizkaia	Gorliz	5.503
65	Gipuzkoa	Deba	5.384
66	Bizkaia	Derio	5.372
67	Gipuzkoa	Lazkao	5.348
68	Gipuzkoa	Orio	5.147
69	Gipuzkoa	Mutriku	5.021
70	Bizkaia	Markina-Xemein	4.950
71	Bizkaia	Berriz	4.882
72	Araba/Álava	Salvatierra/Agurain	4.867
73	Gipuzkoa	Astigarraga	4.709
74	Bizkaia	Sondika	4.515
75	Gipuzkoa	Ibarra	4.345
76	Bizkaia	Plentzia	4.292
77	Bizkaia	Urduña-Orduña	4.258
78	Bizkaia	Igorre	4.239
79	Gipuzkoa	Eskoriatza	4.055
80	Bizkaia	Ugao-Miraballes	4.050
81	Gipuzkoa	Soraluze-Placencia de las Armas	4.002
82	Bizkaia	Iurreta	3.812
83	Gipuzkoa	Zestoa	3.544
84	Bizkaia	Urduliz	3.422
85	Araba/Álava	Oyón-Oion	3.246
86	Bizkaia	Zamudio	3.232
87	Bizkaia	Lemoa	3.226
88	Bizkaia	Zaldibar	3.041


Hurrengo mapak grafikoki adierazten du zeintzuk izan diren azterlan honetako unibertsoa osatu duten udalerriak:

Azterlanaren eremu geografikoa




Hurrengo grafikoetan, Araba, Bizkaia zein Gipuzkoako udal guztien gainean, galdeketa egin zaien proportzioak agertzen dira batetik, eta bestetik, Lurralde Historiko bakoitzeko populazio osoaren gainean, galdeketa egin zaien udaletan bizi direnen zein proportzio suposatzen duen.


Arabako Udalak




Arabako Populazioa




Bizkaiko Udalak




Bizkaiko Populazioa



Gipuzkoako Udalak



Gipuzkoako Populazioa



Laburbilduz esan genezake, galdeketa Euskal Autonomia Erkidegoko udalen %35,06ri soilik egin bazaio ere, bertan bizi den populazioak, Erkidego osokoaren %92,92 suposatzen duela, eta emakumeenaren %93,32.

Galdetegia

Azterketaren helburu diren datuak lortze aldera, hiru atal ezberdin dituen galdetegia diseinatu da, telefonoz egitekoa:

- 1) Udal bakoitzaren datu orokorrak biltzen dituen. Bertan udalaren demografia datu orokorrez gain, helbideak eta kokapen mapa bat ere ageri da.

	Udalerriaren datuak			
Datu demografikoak	Kodea		Izena	
	Biztanleak		Lurralde historikoa	
	Gizonak		I.N.E. (2.010eko datuak)	Mapa
Emakumeak				
Udaletxearen helbidea				
Posta-kodea				
Telefonoa				
Faxa				
E-posta				
Helbideak	Webgunea			

- 2) Berdintasun sailletako arduradunengandik (edo sail espezifikorik ez duten udalen kasuan, gai horien ardura duten pertsonengandik) jasotako datuak.

Atal hau, aldi berean, hiru datu mota ezberdinak jasotzeko asmoarekin diseinatu da:

Lehenik, udalaren baitan, berdintasun gaien ardura duen pertsonaren kontakturako datuak.

Bigarrenik, udalean aurrez egin ahal izan den genero ikuspegipeko hirigintza azterlanen inguruko galderak. Erantzuna baiezkoa den kasuetan, hari buruzko zehaztasunak eskatzen dira: titulua, kostua, noiz egina den, nork egina, parte-hartze prozesurik izan al duen, parte hartu duten pertsonen profil orokorra, azterlan horren ondorioz udalak interbentziorik egin ote duen ala ez, baiezkoa bada, interbentzio horien adibideak, eta kostu gutxi gora-beherakoa. Baita ere galdetzen zaie ea azterlana beraren kopia

digitalik bidaltzerik baduten, Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak interesa erakutsi baitu ahal izan ezkeru haien kopiak jasotzen.

Erantzuna ezezkoa bada berriz, alegia, udalean ez dela halako azterlanik inoiz egin, programatua ba ote dagoen galdetzen da, eta baita udalak halako lan bat egiteko asmorik izango luken diruz lagundua izan ezkeru. Azkenik, udalaren baitako hirigintza sailarekin ohiko harremanik ba ote den jakin nahi da. Azken batean, galdera honek solaserako beta, eta datu kualitatiboetarako irispidea eman baitezake.

Hirugarrenik, galdera ireki bat proposatzen zaie berdintasun ardurak dituzten pertsoneri. Hain zuzen ere, gaiaren inguruan dituzten iritzi, asmo, komentario ezberdinak plazaratzeko beta eskaintzen zaie, hauxe izango baita datu kualitatiboak jasotzeko aukerarik onena.

Harremanetarako datuak

Kontaktua	
Kargua	
Telefonoa	
E-posta	

Udalerriak ba al du eginda hirigintza eta generoaren arteko azterlanik?

Azterlanei buruzko datuak

Bai	Titulua:			
	Gutxi gorabeherako kostua:		Noiz egina:	
	Nork egina:			
	Formatu digitalean kopia bat bidaltzerik? (hirigenmap@gmail.com)			
	Parte-hartze prozesurik egin al zen lana burutzeko garaian?			
	Publikoaren profila:			
	Azterlanaren ondorioz, burutu al da interbentziorik?			
	Adibideak:			
	Gutxi gorabeherako inbertsio osoa:			
Ez	Udalak programatu al du halako ekimenik?			
	Diruz laguntzeak aurreratuko al luke ekimena?			
	Hirigintza Sailarekin ohiko elkarlanik ba al da udalean?			
Gaiaren inguruko asmoak, iritziak eta komentarioak:				
Galdera irekia				

3) Hirigintza sailetakoa arduradunengandik jasotako datuak. Atal hau ere lau zatitan banatu da:

Lehenik, galdetegia erantzuten duen arduradunaren kontakturako datuak eskatzen dira, goiko kasuan bezalatsu.

Bigarrenik, udaleko Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluaren inguruko galderak egiten zaizkie. Lurzuaren 2/2006 Legeak ezarritakoaren arabera, Erkidegoko 7.000 biztanletik gorako udal guztiak (Plan Orokorren behin-betiko onarpenerako eskumena ematen zitzaielako), derrigortuta daude halako Kontseilu bat eratzeraz, zeinak, legearen arabera, sustatuko duen herritarren parte-hartzea Hirigintzako Planeamenduak onartu, berritu edo eraldatzerako garaian.

Jakin nahi dena da Kontseilu hauek zein puntutaraino sortu diren efektiboki, zein osaera duten, haietan emakumeen presentzia zer nolakoa den, eta hirigintza eta generoaren gaia tratatu ote den. Hala den kasuetan, gaiaren inguruan egitea erabaki ahal izan diren lanen adibideak ere eskatzen zaizkie.

Hirugarrenik, eta berdintasun arduradunei egin zaien moduan, udalak aurrez gai honen inguruan egin ahal izan dituen lanei buruzko galderak egiten dira. Baiezko edo ezezko erantzunaren arabera, azpi-galdera sorta bat ere egiten da. Zehazki berdinak ez badira ere, berdintasun sailekoei egindako galderen antzekoak dira, bi helbururekin: haiek jakin ez ditzaketena datuak jaso eta osatzea batetik, eta aldi berean kontrasterako datu gisa balio izatekoa bestetik.

Laugarren eta azkenik, galdera ireki bera proposatzen zaie hirigintza ardurak dituzten pertsoneri. Hain zuzen ere, gaiaren inguruan dituzten iritzi, asmo, komentario ezberdinak plazaratzeko beta eskaintzen zaie, hauxe izango baita datu kualitatiboak jasotzeko aukerarik onena.

Harremanetarako datuak

Hirigintza Sailean lortutako datuak	
Kontaktua	
Kargua	
Telefonia	
E-posta	

Kontseiluari buruzko galderak

Udalerriak ba al du osatuta Hirigintzako Aholkularitza Kontseilurik?			
Bai	Noiztik:	Zenbat kide ditu?	Zenbat dira emakume?
	Emakume elkarteren bateko ordezkariak ba al dago?		
	Kontseiluan landu al da hirigintza eta generoaren gaia?		
	Gaiari buruzko lan zehatzik egitea erabaki al da?		
	Adibideak:		

Azterlanei buruzko datuak

Udalerriak ba al du eginda hirigintza eta generoaren inguruko azterlanik?		
Bai	Azterlanaren ondorioz, burutu al da interbentziorik?	
	Adibideak:	
	Gutxi gorabeherako inbertsio osoa:	
	Diru-laguntzarik balego, inbertsio horiek handituko lirateke?	
	Zertan?	
Ez	Diru-laguntzarik balego, jorratuko litzateke gaia teknikoki?	
	Berdintasun Sailarekin ohiko elkarlanik ba al da udalean?	

Gaiaren inguruko asmoak, iritziak eta komentarioak:	
Galdera irekia	

Prozedura

Behin Galdetegia definituta, eta jaso nahi diren datuak zehaztuta, honakoa da azterlana burutzeko jarraitu den prozedura:

- 1) Zerrendako Udaletara deitu, eta Berdintasun gaietan ardura duten pertsonen kontaktua egin. Behin pertsona horrekin ari garela, Galdetegian Berdintasun sailetako arduradunei zuzendutako galderak egin, eta erantzunak jaso dira.
- 2) Zerrendako Udaletara deitu, eta Hirigintza gaietan ardura duten pertsonen kontaktua egin. Behin pertsona horrekin ari garela, Galdetegian Hirigintza sailetako arduradunei zuzendutako galderak egin, eta erantzunak jaso dira.
- 3) Udalerrri bakoitzari dagozkion datu guztiak jasotakoan, udalerrri horri dagokion fitxa bete da. Fitxa horiek lan honen amaieran atxiki dira, udalez udal, bakoitzaren erantzunak identifikatuak gera daitezzen.
- 4) Aldi berean, datu-base bat sortu da, Microsoften Access softwarea erabiliz, udalez udal jasotako datuak bertan bildu direlarik. Honek aukera eskaintzen du datuen analisirako, eta aurreragoko kontsultak errazteko.
- 5) Datu-basea erabiliz, lortutako informazioaren analisia burutu da, aldagai anitzen arabera, beti ere azterlan honen hasierako helburuak ezagutze aldera. Analisi honen emaitzak azterlanaren hurrengo kapituluaren ematen dira aditzera. Lortutako datu-jarioa handia izan denez, emaitza hauek ahalik eta modurik grafikoenean azaltzen saiatu gara, interes bereziko datuei lehentasuna eskainiz.
- 6) Emaitzak plazaratuta, ondorio orokorrak atera dira. Ondorio hauek lagungarri izan nahi dute Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saila deitzera doan diru-laguntzen deialdiaren diseinurako. Ondorio hauek, azterlan honen azken atalean jaso dira.

Datu-basea

Aurreko atalean aipatu denez, Microsoft Office programaren Access2007 softwarea erabiliz, datu-base zehatz bat sortu da, non azterlan honetan jasotako datuak bildu diren. Datu-base hau, lan honen ale digitalarekin batera, atxikitako CDean aurki daiteke.


Galdetegiaren ondorioz lortu diren datuak anitzak izanik, datu-baserako taula anitzeko egitura bat sortzea erabaki da. Hala, kontsultatu nahi den datua modu eraginkor eta erosoan aurkitzeko aukera dagoela uste dugu.

Gainera, halako datu-baseetan ohikoak diren kontsulta erlazionatuak ere egin daitezke, taula ezberdinak elkarrekin harremanetan jarritz, eta datu erkatuak lortzeko bide erraza eskainiz. Modu honetan, datu-basea eskura duen edozein erabiltzailek, lan honetan azpimarratu nahi izan diren datuez gain, beste edozein lortzea ahalbidetzen du, lana berari uneko informaziorako baliagarritasunaz gain, denboran aurrerako informazio beharrak ere asetzeko moduko izaera ematen dio.

Badu datu-baseak beste abantaila handi bat, eta da edozein erabiltzailek eguneratu dezakeela, gaiaren inguruan udal ezberdinetan gerora begira egin daitezkeen lanak gehituz. Hala, datu-baseak aukera ematen du gaiaren inguruan ematen diren bilakaerak

jasota izatekoa, eta denboraren aldagaiaren bidez ere aurrerantzean datuak kontsultatu ahal izatekoa.

Datu-basea zazpi tauletan egituratu da. Hona taula bakoitzak jasotzen dituen datuen edukiaren deskribapena:



ID	Herriaren izena	Herriakidea	Biztanleria	Emakumeak	Gizonak	Emakume portzent.
1	BILBAO	BIZKAIA	353.187	186.348	167.029	52,71%
2	VITORIA-GASTEIZ	ARABA	238.247	120.593	117.654	50,62%
3	DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	GIPUZKOA	185.506	98.463	87.043	53,08%
4	BARAKALDO	BIZKAIA	99.821	51.305	48.258	51,45%
5	GETXO	BIZKAIA	80.277	42.438	37.839	52,65%
6	IRUN	GIPUZKOA	60.938	32.134	29.804	51,09%
7	PORTUGALETE	BIZKAIA	47.856	24.808	23.048	51,64%
8	SANTURTZI	BIZKAIA	47.051	24.175	22.906	51,39%
9	BASAURI	BIZKAIA	42.452	23.681	20.771	51,67%
10	ERREINTERIA	GIPUZKOA	39.620	19.951	19.069	51,13%
11	LEIOA	BIZKAIA	30.262	15.486	14.776	51,7%
12	GALDAKAO	BIZKAIA	29.254	14.809	14.445	50,62%
13	SESTAO	BIZKAIA	29.224	15.024	14.200	51,41%
14	DURANGO	BIZKAIA	28.261	14.198	13.963	50,95%
15	ELIAR	GIPUZKOA	27.378	14.099	13.279	51,59%
16	ERANDIO	BIZKAIA	24.294	12.340	11.954	50,79%
17	ZARAUZ	GIPUZKOA	22.458	11.521	11.137	50,45%
18	ARRASATE / MONDRAGÓN	GIPUZKOA	22.051	11.078	10.933	50,33%
19	HERNANI	GIPUZKOA	19.285	9.795	9.490	50,79%
20	LAUDIO / LLOCHO	ARABA	18.420	9.297	9.123	50,47%
21	TOLOS	GIPUZKOA	18.095	9.375	8.720	51,41%
22	AMOREBIETA-ETXANO	BIZKAIA	17.969	9.092	8.877	50,60%
23	LASARE-ORRI	GIPUZKOA	17.856	9.034	8.822	50,59%
24	BERMEO	BIZKAIA	17.026	8.649	8.177	50,80%
25	MUNJUA	BIZKAIA	16.527	8.428	8.099	51,08%
26	HONGARRIBIA	GIPUZKOA	16.464	8.264	8.260	49,82%
27	GIENKUA-LUNO	BIZKAIA	16.295	8.407	7.888	51,59%
28	ERNAIA	BIZKAIA	16.196	8.041	8.155	49,65%
29	PASAIA	GIPUZKOA	15.977	8.287	7.690	51,87%
30	ANDOAÍN	GIPUZKOA	14.662	7.330	7.352	49,86%
31	BURGARA	GIPUZKOA	14.617	7.364	7.273	50,11%
32	ALZUPITA	GIPUZKOA	14.105	7.121	7.184	49,78%
33	BEASAIN	GIPUZKOA	13.680	6.779	6.901	49,55%

• Taula: 01 Demografia

Datu demografiko orokorrak jasotzen ditu. Udalerrien izenak, Lurralde Historikoa, biztanle kopurua, horietarik zenbat diren gizonak eta zenbat emakumeak, eta azken hauen proportzioa biztanle kopuru osoarekiko.

• Taula: 02 Udalen helbide orokorrak

Udal ezberdinen helbide orokorrak jasotzen ditu: Udalerrien izenak, Lurralde Historikoa, helbide fisikoa, posta kodea, telefono eta fax zenbakiak, webgune ofizialaren helbidea, eta e-posta helbide orokor bat. Datuak horrela jaso izanak, mailing lanak errazten ditu, adibidez (etiketak inprimatzeko, kopiatu eta itsatsiz e-postak bidali ahal izateko, eta abar).

• Taula: 03 Kontaktuak – Berdintasun saila

Udal ezberdinetako Berdintasun gaietan ardurak dituzten pertsonen datuak jasotzen ditu. Hauexei egin zaizkie galdeketako galderak, eta haien erantzunak dira jaso direnak. Taulan, Udalen izena, berdintasun ardurak dituen pertsonaren izena, bere udalaren baitako kargua, telefono zenbakia (zuzenik badute huraxe, bestela udaleko telefono zenbaki orokorra), eta e-posta helbidea daude jasota.

• Taula: 04 Kontaktuak – Hirigintza saila

Udal ezberdinetako Hirigintza gaietan ardurak dituzten pertsonen datuak jasotzen ditu. Hauexei egin zaizkie galdeketako galderak, eta haien erantzunak dira jaso direnak. Taulan, Udalen izena, hirigintza ardurak dituen pertsonaren izena, bere udalaren

baitako kargua, telefono zenbakia (zuzenik badute huraxe, bestela udaleko telefono zenbaki orokorra), eta e-posta helbidea daude jasota.

- **Taula: 05 Emaizak – Berdintasun saila**

Berdintasun ardurak dituzten pertsonengandik jasotako erantzunak biltzen ditu taula honek. Galdetegian ageri diren galdera guztien erantzunak jaso dira, galdera irekikoak ezik, beronen izaera irekiak erantzuna sistematizatu eta datu-basean sartzeko zailtasunak eskaintzen dituelako.

- **Taula: 06 Emaizak – Hirigintza saila (Kontseiluari buruz)**

Hirigintza ardurak dituzten pertsonengandik jasotako erantzunak biltzen ditu taula honek, beti ere Kontseiluari dagozkienak. Galdetegian ageri diren Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluaren inguruko galdera guztien erantzunak jaso dira.

- **Taula: 07 Emaizak – Hirigintza saila (Azterlanei buruz)**

Hirigintza ardurak dituzten pertsonengandik jasotako erantzunak biltzen ditu taula honek, beti ere Kontseiluari dagozkienak. Galdetegian ageri diren Azterlanen inguruko galdera guztien erantzunak jaso dira, galdera irekikoak ezik, beronen izaera irekiak erantzuna sistematizatu eta datu-basean sartzeko zailtasunak eskaintzen dituelako.

Goian esan bezala, lan honi begira jasotako datuak daude bilduta datu-basean. Baina datu-basea bizirik mantendu daiteke, dagokion erabiltzaileak gaiaren inguruan sortzen diren datu berriak gehitzeko ardura hartzen badu. Horrek, datu-basea beraren aurreragoko baliagarritasuna ekarriko luke.




Emaizak

Atal honetan emango dira jakitera galdetegiaren ondorioz jaso diren datuetatik ondorioztatu daitezkeen emaitzak. Emaitza hauek ahalik eta ordenatu eta erabilgarrien izan daitezen, Galdetegia beraren ordena bera jarraituko dugu emaitzak aurkezterako garaian. Alegia, lehenik, galdetegiaren unibertsoari buruzko emaitzak aurkeztuko dira. Gero, berdintasun ardurak dituzten pertsonengandik jasotako datuen emaitzak, eta ondoren, hirigintza ardurak dituzten pertsonengandik lortutakoak (bai Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluaren ingurukoak, baita aurrez gaiaren inguruan egin ahal izan diren lanei buruzkoak ere) aurkeztuko dira. Azkenik, bi hauen arteko erantzunak erkatuz lortu diren emaitzak ere aurkeztuko dira.

Galdeketa egin zaien udalen kopurua, biztanleen kopuruaren arabera banatuta

Aurreko atalean ikusi dugu zeintzuk izan diren galdetegia egin zaien EAEko Udalak, baita Lurraldeka nola dauden banatuta ere. Baina ez dugu haien demografiaren arabera banaketarik egin, eta hirigintzaren ikuspegitik, garrantzitsua da biztanle kopuruaren arabera banaketa hau.

Galdeketa egin zaien udalen kopurua, biztanleen kopuruaren arabera banatuta




Ikus daitekeenez, galdeketa egin zaien udalen artean gehiengoa, 5.000 eta 10.000 biztanle artekoa da. Aipagarria da baita ere, galdeketa egin zaien udalerrien osatzen duten udalerrien erdia baino gehiago (zehazki %53,41), 10.000 biztanletik beherakoak direla.

Honek izan dezake gaiaren inguruko eraginik. Aurrez ulergarri gerta daitekeen bezala, zenbat eta txikiagoa den udalerri bat, orduan eta aukera gutxiago baitago hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat eginda izatekoa. Izan ere, tamaina horietako udalerrietan, giza eta ekonomia baliabideak txikiagoak dira handiagoetan baino, eta normalean ez dute Berdintasun Teknikari edo kargu zehatzik izango halako lanen bat sustatuko duena.

Bestalde, eta galdeketa egin zaien udalerrien harrera orokorrean oso ona izan bada ere, ez da lortu udal guztietako bina sailetako erantzunik. Zehazki, udal batetako berdintasun sailleko arduradunek uko egin diote galdeketa erantzuteari.

Lortutako erantzunak*


- Bi sailetakook
- Hirigintza Sailekoa bakarrik



*Galdeketa erantzun duten udalen kopura (% 98,86k bi sailetako erantzuna eman dute).

Hurrengo mapan, lortutako erantzunen geografia erakusten da. Aipatu soilik, erantzuna lortu ez den udalaren kasuan, hasieran galdetegia telefonoz erantzutea ez zutela egoki ikusi, eta e-postaz erantzutea eskatu zutela. Lanaren metodologia telefono bidezko erantzunak lortzea bazen ere, datua izate aldera, e-posta bidali zitzaaien galdetegia. Ondoren telefono bidezko jarraipena ere egin zaie, azken unera arte, baina ez erantzuteko erabili duten argudioa izan da, datuak eskaini ahal izateko udalaren baimena behar zutela, eta baimen horren zain zirela. Lana aurkezteko epea gainean zela eta, azkenean erantzunik ez da jaso. Mapan, berdez ageri dira bi sailetako erantzunak lortu diren udalak, eta gorritz hirigintza saileko erantzuna baino lortu ez dena.


Lortutako erantzunen mapa



Ikus daitekeenez, Gipuzkoa eta Arabako 3.000 biztanletik gorako udalen %100etan bi sailetako erantzunak jaso diren bitartean, Bizkaiko 3.000 biztanletik gorakoen %97,78tan lortu dira bi sailetako erantzunak. Gainerako %2,22an berriz, behintzat, Hirigintza saileko arduradunen erantzuna baino ez da jaso.

Bizkaian lortutako erantzunak

- Bi sailetakook
- Hirigintza Sailekoak bakarrik




Berdintasun sailetan lortutakoak

Azpiatal honetan, berdintasun gaitako arduradunei egin zaizkien galderetan lortutako erantzunak aztertuko dira. Hasteko, eta udalen tamaina eta antolaketaren arabera, erantzunak eman dituzten pertsonen kargu ezberdinak direla eta, egokia deritzogu erantzunak eman dituztenen profilari buruzko datuak ikustea.

Gogoratu, udal batetako berdintasun sailetik ezin izan dela erantzunik lortu, beraz, gainerako 87 udaletako erantzunen gainerako datuak aurkeztuko dira azpiatal honetan.

Erantzun duten pertsonen profilak

- Berdintasun teknikariak
- Berdintasun ardurdunak
- Bestelako teknikariak
- Bestelako ardurdunak



Nagusiki, Berdintasun Teknikariak izan dira galdetegia erantzun dutenak (%54,02). Kopuru horixe da berdintasun teknikariak dituzten udalena, hala duten kasuetan, teknikariarekin zuzenean hitz egitea eskatu baita. Dena den, aipatzekoa da, 9 kasutan, teknikaria ez dela udalarentzat soilik ari, baizik eta Mankomunitatearen baitako zerbitzu bat eskaintzen dutela. Zehazki, Bizkaiko Urola Kosta Mankomunitatea eta Txorierriko Mankomunitatearen kasuan, eta Gipuzkoako Urola Garaiko Mankomunitatearen kasuan.

Gainera, beste 9 galdetegi egin zaizkie, teknikari izan gabe, udaletan berdintasun politiken ardura zuzenak dituzten pertsonen, tartean berdintasun politika arduradunak, berdintasun sailetako zinegotziak, edo berdintasun batzordeetako idazkariak. Hauek galdetegi osoa erantzun duten pertsonen %10,34 suposatzen dute.


Esan dezakegu, beraz, berdintasun gaiak espresuki eramaten dituzten pertsonen erantzun dutela galdetegia kasuen ia bi herenetan (%64,36).

Gainerako kasuetan, udaletan ez zegoen espresuki berdintasun teknikari edo arduradunik. Orokorrean, tamaina txikiko udaletan, giza baliabide eskasia dela eta, generoaren gaia bestelako teknikarien esku geratzen da. Gehienbat, gizarte zerbitzuetako teknikarien esku, eta ia beti, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan esku-hartzeko ardurarekin. Zehazki, halako 27 teknikarik erantzun dute galdetegia (%31,03).

Azken 4 kasuetatik bitan, zerbitzu hainbat (horien artean emakumeen aurkako indarkeriaren gaiak, edota Berdintasun Planak aurrera eramateko ardura) Mankomunitateak duten bi udalen izenean, Mankomunitateko Gerenteak erantzun du galdetegia (zehazki, Arratiako Mankomunitatekoak). Gainerako biak, udal idazkariren batek erantzun ditu.

Hurrengo mapan, berdintasun ardurak dituzten pertsonen dagokien galdetegia erantzun duten pertsonen profilaren arabera mapa bat ikus daiteke: berdez berdintasun teknikariek erantzun duten udalak, urdinez berdintasun ardurak dituzten bestelako pertsonen erantzun dutenak, laranja bestelako gaitako teknikariek erantzun duten udalak (nahiz eta berdintasun gaiak eramaten dituzten), eta horiz berriz, bestelako arduradunek erantzun duten udalen kasuak. Gorritz, gogoratu, erantzun ez duen udala.


Berdintasun ardura duten pertsonen zuzenduriko galdetegia erantzun duten karguen profila adierazten duen mapa



Hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat egin dutenei buruz


Jarraian, berdintasun ardurak dituzten pertsonen emandako erantzunen arabera, hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat egin dutenen artean jasotako emaitzak ikusiko ditugu. Horretarako, lehenik, zein udalek egin duten halako azterlanen bat, eta zein udalez ez jakin beharko dugu.

Azterlana eginga duten udalak



Hirigintza sailletako pertsonen egindako galdetegiaren emaitzak ikusi ondoren, eta datuak erkatuta ñabardurak izango baditu ere, berdintasun ardurak dituzten pertsonen erantzundakoaren arabera, 38 dira hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat eginga duten EAEko 3.000 biztanletik gorako udalerriak (%43,68 hain zuzen ere). Alegia, udalen erdiak baino gutxiagok du eginda halako azterlan bat.


Azterlan kopurua udalen tamainaren arabera



Datuak ikusita, erraz ondorioztatu dezakegu EAEko udalerri nagusiek, batik bat 25.000 biztanletik gorakoek, badituztela halako azterlanak eginda. Azterlan kopurua erdira jaisten da 15-25.000 biztanle arteko udaletan, eta herenera 10-15.000 biztanle artekoetan. Kuriosoki, 5-10.000 biztanle artekoetan, berriro igotzen da, eta udalen ia %40ak eginga du halako azterlanen bat. Aldiz, galdetutako udalik txikienetan, azterlanen kopurua ia anekdotikoa da.

Hona, goiko datuek utziko liguketen Erkidegoaren geografia: berdez azterlana dutenak, horiz ez dutenak. Gorritz berriz, erantzun ez duen udalaren kasua (nahiz eta gero ikusiko dugun, genero ikuspegipeko hirigintzaren azterlana eginga duela, hirigintzako arduradunek erantzundako emaitzak aurkezten ditugunean).


EAEko udaletako azterlanak,
berdintasun arduradunen arabera



Ikusi dugu geografikoki, eta biztanleen arabera zein den hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan, baina garrantzitsua izan daiteke azterlan horiek denboran zehar izan duten bilakaera, nolabait ikusteko noiztik hasi diren Erkidegoko udalak halako lanak burutzen, eta denboran zehar mantendu den jarrera eta interes bat den, ala denbora-epe zehatz batetan gertatutako azterlanak izan diren.

Denbora-ikuspegi hau aztertzeko, hurrengo grafikoaz baliatuko gara, zeinak hirigintza eta generoaren inguruko azterlanak noiz egindakoak diren adierazten baituen, urtez urte egin direnak jasoz.

Azterlan kopurua historikoki




2012an ageri den azterlana ez da akats bat. Aretxabaletako udala une honetan bertan ari da egiten hirigintza eta generoaren inguruko bere azterketa, eta datorren urterako amaituta izango duenez, hemen sartzea erabaki da.

Ikus daitekeenez, hirigintza eta generoaren inguruko azterlan ezberdinak duela urte asko hasiak dira egiten EAEko udalerrietan. Baina hasierako urteetan modu isolatuan egiten baziren ere, esan dezakegu azken urteetan gorakada nabarmena izan dutela, bereziki 2009an.

Joera hau izanda, suposatu dezakegu datozen urteetan ere gorakada hau mantenduko dela, baldin eta udaletako finantza egoerak halakorik ahalbidetzen badu behintzat. Tamaina ertain eta handiko herri eta hiri ugari dira oraindik Erkidegoan hirigintzaren genero ikuspegipeko diagnostikorik egin ez dutenak, eta horrexek adierazi dezake goranzko joeraren jarraipena.

Gisa honetako azterlanen gerorako bilakaera baldintzatuko duen beste argudio garrantzitsu bat, berauek egiteak udalei dakarkien kostua da. Egun pairatzen ari garen krisi egoerak asko jaitsi du udaletan inbertsionarako dagoen diru kopurua. Hori dela eta, garrantzitsua izan daiteke (gehienbat diru-laguntzak eratzerako garaian), egindakoek zein kostu izan duten jakitea.


Noski, kostuaren kalkulurako aldagaiak anitzak dira: aztertu beharreko hiriaren tamaina, erabiliko den metodologia, xehetasun maila, eskaintza egiten duen enpresaren egitura, eta abar. Baina aldagai guzti horiek unean unekoak izango direnez, lan honetan ezin dugu orain arte egindako azterlanen kostuari buruzko datuak eman baino egin. Honatx:



Azterlana burutu duten 38 udaletatik 11ak ez du jakin esaten zein kostu izan zuen lan hori burutzeak. Goiko grafikoak adierazten dituen kopuruak, gainerako 27 udaletan jasotako datuei buruzkoak dira. Salbuespenak salbuespen, esan genezake lan gehienek kostua 10.000€ ingurukoa izan dela.

Bestalde, azterlan hauen egile izan diren enpresak ere anitzak dira. Honek frogatzen du badela merkatu bat gaiaren inguruan sortua. Xehetasunak albo batera utzita, ez baita lan honen helburua enpresa pribatuaren publizitatea egitea, baina merkatuaren banaketa ezagutze aldera, hona grafiko bat:

Azterlanen egileak



Azterlanek izen ezberdinak badituzte ere, denek dute helburu bera: hiriaren egitura eta espazio publikoaren azterketa, generoaren zein eguneroko bizitzaren ikuspegitik, hiria beraren jabetza izan, eta hobetze lanetan lagungarri izan dadin. Hala, honako deiturak har ditzakete lan hauek, beste batzuen artean:


- Hiri debekatuaren mapak
- Genero ikuspegioko hiri-diagnostiko edo analisiak
- Segurtasun diagnostikoak
- Egunerokotasun azterketa edo mapak
- Berdintasun diagnostikoak
- Hiri-espazioari buruzko gogoetak
- e.a.

Azterlan guztiek duten ezaugarrietako bat, herritarren, eta batez ere emakumeen parte-hartze prozesuen oinarrian egiten direla da. Erantzun guztiak bat datoz honetan (%100). Gainera, parte-hartzaileen profilari buruz galdetuta, askotan modu partekatuan bada ere, denek, alegia erantzunen %100ak, azterlanak egiterakoan emakumeek parte hartu zutela diote.

Orain artean aurkeztu ditugun emaitza eta datu guztiak, genero ikuspegioko hirigintza azterketei beraiei buruzkoak izan dira. Ez dago zalantzarik, generorik gabeko hiria izaterako bidean, lehen pausua dela hiriaren baitako espazio publikoetan zein gabezia edo hobekuntza behar dauden diagnostikatzea. Baina diagnostiko lanak bere horretan ez du hiria eraldatzen. Eraldaketa eta hobekuntza lan horiek aurrera eraman behar dira, eta interbentzio ezberdinen bidez, hiriaren egunerokotasuna hobetzen joan.

Azterlanen ondorio praktiko hauek noraino eraman ote diren jakite aldera, hiri-diagnostiko hauek eginda dituzten udalei galdetu zaie ea azterlanen ondorioz inolako interbentziorik egin ote den. Hona emaitzak:


Interbentziorik egin ote den



Alegia, udalen erdiak baino ez dira hasi azterlanen ondorioz aurkitu diren arazoak konpontzen.

Interbentzioak egin dituztela esan duten udalei, adibideak jartzeko eskatu zaie, alegia, esan dezatela zein hobekuntza lan egin diren. Jaso dena ez da noski zerrenda zehatz bat, baina bi gauzetarako balio du: batetik, azterlanek zein ondorio praktiko ekartzen dituzten ezagutu, eta bestetik erantzunaren berehalakotasunagatik, teknikariek, edo galderak erantzun dituzten arduradunek, zein interbentzio jotzen dituzten garrantzikoentzat ezagutzeko.

Hurrengo grafikoan jaso dira erantzunen artean gehien errepikatu diren interbentzio motak. Udalez udal jasotako erantzunak, Eranskineko fitxa indibidualetan kontsultatu daitezke.



Azken galdera bat ere egin zaie interbentzio hauen inguruan. Jakin nahi genuen zein zen gutxi gora behera udalak haietara bideratutako gastua. Aurretiaz genekien datua ez zela jasotzen erraza, are gutxiago telefono bidezko galdeketa formatuarekin. Hori dela eta, eta erantzun bi baino jaso ez ditugunez, ez dugu aipamenik egingo (fitxetan daude datuak, dena den). Izan ere, bi datu soilekin ezin baita orokortasunik atera.

Hirigintza eta generoaren inguruko azterlanik egin ez dutenei buruz


Orain arte agertu diren datuak, genero ikuspegipeko hirigintza azterketak eginak dituztela erantzun duten udaletako berdintasun arduradunei egin zaizkien galderen emaitzetatik ateratakoak izan dira. Baina ikusi dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoko 3.000 biztanletik gorako udal gehienek (%56,32ak hain zuzen), ez du oraindik halako azterlanik egin.

Kasu hauetan, jakin nahi da ea udalak halako azterlanen bat egiteko interesik izango lukeen, batetik, eta baita berdintasun sailetatik hirigintza sailarekin ohiko elkarlanik baduten ere. Elkarlan estua izateak, errazago egingo luke sailen arteko lana, eta ondorioz, hirigintza eta berdintasuna uztartzekoa.

Hasteko, eta oraindik hirigintza eta generoaren inguruko azterketarik egin ez badute ere, halako azterlanen bat egitea programatuta ote duten galdetu zaie udaletako berdintasun arduradunei. Hona galderaren emaitzak: zehazki, 7 dira halako azterlan bat egitea jadanik

programatuta duten udalak. Horrek esan nahiko luke, 2012rako, jadanik azterlana egina duten 38 udalez gain, beste 7 ere izango direla. Aurretik ikusi dugun grafiko historikoa eguneratuz hortaz:


Azterlan kopurua historikoki



Ikus daiteke, lehen aipatu dugun goranzko joera hau mantentzen dela, halako azterlanak jadanik programatuta dituzten udalak soilik kontutan izanda. Agian gehiago izan daitezke datorren urtera begira horrelako lan bati ekingo dioten udalak.


Gauzak horrela, esan dezakegu datorren urte amaieran, gutxienik, EAEko 3.000 biztanletik gorako udalen erdiak pasatxo, egin izango duela hirigintza eta generoaren inguruko azterlan bat.

Aurrikuspena 2012



EAEko hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen egoera adierazten zuen maparen oinarrian, urdinez ageri dira orain datorren urteari begira halako azterlan bat egitea programatua duten udalak:


2012 amaieran, EAEko udaletan hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen egoeraren aurreikuspena



Azterlanik ez duten udalei galdetu zaie ea horretarako espresuki sortutako diru-laguntzak izango balira, animatuko ote liratekeen halako azterlan bati ekiteko. Noski erantzunak borondatea baino ez duela adierazten. Izan ere askok esan baitu diru-laguntzek gastuen ehuneko altu bat (osoa ez bada) ordaintzeko adinakoak behar luketela izan udalak halako lan bat egitea onartzeko.

Gainera, berdintasun ardurak dituzten pertsonak diote, azkenean erabaki politikoa izango dela halako lan bati ekitea ala ez. Horrexegatik, batzuen erantzuna “ez dakit” izan da. Dena den, esanguratsua da, udal batetan ezezko borobila eman dutela erantzun gisa. Antza, udal horren finantza egoera hain da txarra, ez dutela inolako inbertsiorik aurreikusten epe motzera begira. Hona emaitzak:

**Diruz lagundu ezkeror,
azterlanak egingo lituzketenak**




Aipatu soilik, genero ikuspegipeko hirigintza azterlanak egitea jadanik programatuta duten 7 udaletako erantzuna positiboa izan dela galdera honi erantzuterako garaian.

Erantzunen arabera, ondorio garbi bat atera daiteke, eta da udal guztietan badela nolabaiteko sentsibilizazioa gai honi buruz, eta baita azterlanak egiteko borondatea ere. Agian, baliabideak dira falta direnak, eta gabezia hori asetzeko diru-laguntzen existentzia oso ona izan daiteke.

Azkenik, berdintasun sailetatik udalaren baitako hirigintza sailekin duten harremanen ohikotasunari buruz galdetu zaie. Ustea zen, harreman horiek ohikoak izan ezker, eta nahiz eta azterlan zehatzik ez izan, hiri egitura eta espazio publikoen izaerek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatze alderako interbentzioak erraztuko zituela. Dena den, erantzunak ez dira oso itxaropentsuak izan. Asko izan dira hirigintza sailen funtzionamendu autonomoegiaren kritika egin dutenak.

Udalen herenak baino gehixeago bakarrik izan dira harremana ohikoa dela esan dutenak (%36,73). Gainerakoak harreman estu horren falta agerian utzi dute. Orokorrean, udal txikienetan, harreman hori estuagoa da handienetan baino. Langile gutxiago izanda, harremana ohiko eta estuagoa dela diote.

Hirigintza Sailarekiko haremanak ohikoak dira?




Hirigintza Sailetan lortutakoak

Azpiatal honetan, hirigintza gaietako arduradunei egin zaizkien galderetan lortutako erantzunak aztertuko dira. Hasteko, eta udalen tamaina eta antolaketaren arabera, erantzunak eman dituzten pertsonen kargu ezberdinak direla eta, egokia deritzogu erantzunak eman dituztenen profilari buruzko datuak ikustea.

Berdintasun ardurak zituzten kasuan ez bezala, hirigintzako ardura duten pertsonen kasuan, galdetegiaren unibertsoa osatzen duten 88 udalerrietako datuak jaso ahal izan dira. Datuak, beraz, osoak izango dira kasu honetan.

Erantzun duten pertsonen profilak



Nagusiki, Arkitektoak izan dira galdetegia erantzun dutenak (%45,45). Normalean udaletako hirigintza gaiak gehien ezagutzen dituzten teknikariak dira. Baina udal handienetan, hirigintza sailek bestelako arduradunak ere izan ohi dituzte (abokatuak eta abar), sailaren gidaritza lanak egiten dituztenak. Horien artekoak izan dira erantzunen beste %20,45.


Bestalde, eta tamaina ertain edo txikietako udalerrietan, arkitektoak kanpo aholkulari gisa aritzen ohi dira. Normalena, eguneroko gaiak aparejadoreen eskutan geratzea izaten da halako udaletan. Horregatik, erantzun guztien %21,59, aparejadoreen eskutatik etorri dira.

Gainera, beste 10 galdetegi egin zaizkie, teknikari izan gabe, udaletan hirigintza politiken ardurak dituzten bestelako pertsonen, tartean batzordeetako idazkariak, eta abar. Hauek galdetegia erantzun duten pertsonen %11,36 suposatzen dute.

Esan dezakegu, beraz, berdintasun gaiak espresuki eramaten dituzten pertsonen erantzun dutela galdetegia kasu ia guztietan (%98,86). Kasu bakarrean (%1,14), Udal Idazkariak erantzun du hirigintza arduradunei zuzendutako galdetegia.

Hurrengo mapan, hirigintza ardurak dituztenei dagokien galdetegia erantzun duten pertsonen profilaren arabera mapa bat ikus daiteke: berdez arkitektoek erantzun duten udalak, urdinez hirigintza sailetako buru diren pertsonen erantzun dutenak, laranja aparejadoreek erantzun duten udalak, horiz bestelako arduradunek erantzun duten udalen kasuak, eta gorritz udal idazkariak erantzun duen kasua.

Hirigintzako ardura duten pertsonen zuzenduriko galdetegia erantzun duten karguen profila adierazten duen mapa



Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluei buruz


Legebiltzarrak onartutako 2/2006 Lurzoruaren Legeak, hirigintza gaietan herritarren parte-hartzea sustatzeko, Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluak eratzea derrigortzen

zituen Autonomia Erkidegoan Hiri Planeamenduak behin-betiko onarpenerako eskumena zuten Udalak. Printzipioz, Lege berak dio, halako eskumena duten udalak 7.000 biztanletik gora dutenak direla.

Generoa eta hirigintzaren gaia oso estuki dago erlazionatua hirigintza prozesuetan herritarren partaidetzarekin. Ikusi dugu burutu diren azterlan guztiek, halako parte-hartze prozesuetan izan dutela beraien oinarria. Hori dela eta, pentsa daiteke agian Aholkularitza Kontseilu hauek foro egokia izan daitezkeela generoa eta hirigintzaren arloko gaiak landu, eta azterlanak bultzatzeko. Hala, gai honen inguruko datuak eskatu dira galdetegian, Euskal Udalen egoera zein den jakiteko.

Gainera, 7.000 biztanletik beherako udalek, nahiz eta legearen derrigortasunik ez izan, agian sortu dituzte halako erakundeak beraien udalen baitan, hirigintza gaietan herritarren parte-hartzea sustatzeko.

Lehenengo jakin beharreko gauza hortaz, galdetutako udalek Hirigintzako Aholkularitza Kontseilurik baduten ala ez izango da. Honatx datuak:




Ikusten denez, Euskal Autonomia Erkidegoko 3.000 biztanlez gorako Udalerrien %52,27ak badu eratua Hirigintzako Aholkularitza Kontseilua. Dena den, eta jakinda Erkidegoan 7.000 biztanletik gorako 55 udalerrri daudela, esan dezakegu Legeak eskatzen duen derrigortasuna ez dela guztietan bete.

Horrela izatearen arrazoiak ugariak izan daitezke, baina batik bat, zera da gertatzen dena: Legeak dio, Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluen betebeharr nagusia dela herritarren parte-hartzea sustatzea Hiri Planeamenduak edo haien aldaketak onartzerako garaian. Badira udalak, legea onartu zen garaitik beraien planeamenduetan inolako aldaketarik egin ez dutenak, eta hortaz, ez dute Kontseilua eratzeko beharrik ikusi.


Aurretiaz ateratako ondorioa bada ere, esan dezakegu, orokorrean, Hirigintza Kontseiluek duten papera, legeak eskatzen dienera mugatzen dela, eta ez direla edozein hirigintza gairen inguruan benetako herritarren parte-hartzea sustatzeko foroak.

Egoera argiago ikusteko, hurrengo grafikoan adierazten dugu biztanleriaren arabera udalen banaketa, eta horietarik zenbatek duten eratua Hirigintzako Aholkularitza Kontseilua. Ikusten denez, 7.000 biztanletik beherako udal bakar batek ere ez du Kontseilurik eratu, eta haien gainetik daudenetan, 25.000 biztanletik gorako kasuetan ezik, badirela oraindik Kontseilua osatu gabeko hainbat udal ere. Zehazki, 9 dira legeak derrigortu arren, oraindik Kontseilurik eratu ez duten 7.000 biztanletik gorako udalerririk.




Ondorengo mapan ikus ditzakegu berdez Kontseilua eratuta duten udalerriak zeintzuk diren, gorriz Kontseilua eratu gabe duten 7.000 biztanletik gorako udalerriak zeintzuk diren, eta horiz 3.000-7.000 biztanle arteko udalerriak. Gogoratu hauetariko inork ez duela Hirigintzako Aholkularitza Kontseilurik eratu, legeak ez dituelako horretara derrigortzen:

Consejos de Planeamiento Urbanístico en la CAV



Dena den, denok dakigu legeen aplikazioak, eta haiei egokitzeak denbora behar izaten duela. Horri begira, garrantzitsua izan daiteke ikustea denboran zehar nolakoa izan den Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluen eraketa. Hori hurrengo grafikoaren bidez ikus dezakegu:

Kontseiluen erakuntza historikoki



Ikus daitekeenez (kontutan izan behar da galdeketa erantzun duten bi udaletako arduradunek ez dutela jakin zehazten zein urtetan eratu zen beraien Aholkularitza Kontseilua), Legea bera onartu ondorengo urteak izan direla Kontseiluen sorrera ikusi dutenak, baina azken urtean bat bera ere ez dela eratu. Esan dezakegu, Kontseiluen sorreraren prozedura nahiko geldirik dagoela une honetan.


Jaso nahi izan den beste datuetako bat da, Udalen Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluetan emakumeen presentzia zenbaterainokoa den. Horregatik, udal bakoitzari, Kontseiluak zenbat kide dituen, eta horietatik zenbat diren emakumeak. Zuzenean ondorioztatzetik ez badago ere, zenbat eta emakumearen presentzia parekideagoa Kontseiluetan, orduan eta genero ikuspuntua presentzago hirigintzan, eta hiriaren genero aldetiko erabilpen berdinduagoa.

Datu hau ere ez da biltzen erraza izan, gehienbat bi arrazoi direla medio:

- Udal hauteskundeak pasa berriak ditugu, eta horrek Kontseiluen baitako kargu politikoen aldaketa ekarri du. Kasu gehienetan, Kontseilua ez da bildu oraindik legegintzaldi honetan, eta gehienetan, kide politiko berriak izendatu ere egin gabe daude.
- Herritar mugimenduetako ordezkarien presentzia aldakorra. Kontseiluen araudi gehienetan, mugimendu ezberdinei eskatzen zaie kide titularra eta ordezkoa izendatzea, baina askotan bat zein bestea joaten da, edo mugimenduko beste kideren bat ere bai. Horrek, kideen jarraitasun eza suposatzen du, eta zenbat emakume diren kalkulatzeko zailtzen.

Udalez udal jasotako datuak ñabardura ezberdinak badituzte ere (bada kasu bat Kontseiluaren araudiak berak ezartzen duena emakume adina gizon egongo direla Kontseiluan), jaso ahal izan diren datuen ondorioz, emaitza orokor hau daukagu:


Kontseiluetako kideen generoa



Ikus daitekeenez, Kontseiluetan, orokorrean, emakumeen presentzia herena baino pixka bat handixeagoa da.

Bestalde, eta Lurzoruaren 2006ko Legeak Kontseiluen baitan herri mugimenduen parte-hartzea sustatzen zuenez, interesgarria iruditu zaigu galdetzea zenbat kasutan ote dagoen udalerri bakoitzeko emakume elkarteren bateko ordezkaritzarik eratutako Kontseiluetan.


Emakume-elkarteen presentzia



Emakume elkarten presentzia Kontseiluen erditan baino ez dago, gutxi gorabehera.

Kontseiluen osaeraz gain, bere baitan, eta aztertu dituzten gaien artean, hirigintza eta generoaren gaia egon ote den galdetu diegu hurrena. Emaitzak ez dira oso itxaropentsuak. Seguruenik, Kontseiluak legearen ondorioz sortu, eta hark emandako eskumen zehaztetara mugatu direlako.

Hirigintza eta generoaren gaia Kontseiluetan



Gaia, dozena erdi udaletako Kontseiluetan baino ez da tratatu, alegia, Kontseilua eratuta duten udal guztien %13,04an bakarrik. Are latzagoa, 6 udal horietatik, gaia eztabaidatu ondoren, erabaki zehatzak bitan baino ez dituzte hartu. Kasu baten gaiaren inguruko Jardunaldi batzuk antolatzea izan zen harturiko erabakia, bestean aldiz, sakontasun handiagokoa izan zen erabakia. Alegia, egindako genero ikuspegipeko hirigintza azterlana, Udalaren Plan Orokorrean jasotzea.

Hauxe izan liteke orain arte EAEko Udalerrien artean, halako azterlan batek izan duen emaitzarik gorena, izan ere, lana Plangintzaren parte bihurtuta, hirigintzaren garapenaren parte izango baita, bai diagnostiko gisara, baina baita haren gerorako egintza praktikoan ere.


Agian horrexek behar luke izan genero ikuspegipeko hirigintza azterlan ororen azken lekua, nolabait bermatuko bada hiriak benetan generorik ez izatea, eta espazio publikoak eraldatzea guztiok bizi eta erabili ahal izateko moduan.

Hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat egin dutenei buruz

Jarraian, hirigintza ardurak dituzten pertsonen emandako erantzunen arabera, hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat egin dutenen artean jasotako emaitzak ikusiko ditugu. Horretarako, lehenik, zein udalek egin duten halako azterlanen bat, eta zein udalez ez jakin beharko dugu. Galdera berbera egin diegu lehenago udaletako berdintasun ardurak duten pertsonari.

Helburuak, bi: hirigintza sailek gaiaren inguruan egindako lanak ezagutzen dituzten ala ez jakitea, eta kontrasterako datu gisa erabiltzea aldi berean.

Azterlana eginga duten udalak



Datu hauek nahikoa ezberdinak dira Berdintasun sailletako arduradunengandik jaso ditugunekiko. Gogoratu haietan 38 zirela hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat eginga zutela ziotenak. Aldiz, hirigintzako arduradunen arteko erantzunetatik, 29 baino ez dira. Honek irakurketa garbi bat dakar, eta da, udal askotan hirigintza sailletako arduradunek ez dakitela berdintasun sailletatik eragin eta burutu diren halako azterlanik denik ere.

Dena dela, eta hurrengo azpiatalean emaitzak erkatzen ditugunean ikusiko da, badira alderantzizko kasuak ere (nahiz eta gutxiengoa diren), non berdintasun sailletako arduradunek ez duten ezagutzen halako azterlanen existentzia, baina hirigintza sailletakoek bai.

Uste dugu, halako kontraesanek mesede gutxi egiten dietela gai honen inguruko azterlanei, izan ere dokumentuak bere horretan geratuko badira, eta udalen baitako gainerako sailek ezer jakingo ez badute, ia-ia ez egitea bezalatsu delako.


Ez goaz hortaz, Hirigintza Sailletako arduradunengandik jasotako datuen geografia erakutsiko duen maparik aurkeztera. Ez luke zentzurik, jakina baita dagoeneko, ez duela errealitatea adierazten.

Jabetu garena ba da, aldiz, Berdintasun Saileko arduradunek erantzun ez zuten udal hartan, eta Hirigintzako erantzunetan oinarrituta, han ere eginga dutela hirigintza eta generoaren inguruko azterlana.

Ez dago zalantzarik, generorik gabeko hiria izaterako bidean, lehen pausua dela hiriaren baitako espazio publikoetan zein gabezia edo hobekuntza behar dauden diagnostikatzea.

Baina diagnostiko lanak bere horretan ez du hiria eraldatzen. Eraldaketa eta hobekuntza lan horiek aurrera eraman behar dira, eta interbentzio ezberdinen bidez, hiriaren egunerokotasuna hobetzen joan. Azterlanen ondorio praktiko hauek noraino eraman ote diren jakite aldera, eta Berdintasun Sail eta arduradunei galdetu zaieen modu berean, hiri-diagnostiko hauek eginda dituzten udalei (hirigintza sail eta arduradunei, hain zuzen ere) galdetu zaie ea azterlanen ondorioz inolako interbentziorik egin ote den. Hona emaitzak:

Interbentziorik egin ote den




Datu honek ere aurrekoaren ondorio bertsua dakar. Berdintasun sail eta lorturiko emaitzek ziotenez, 19 ziren azterlanaren ondoren interbentzioak egin zituzten udalak. Aldiz, hirigintza sail eta jasotako datuen arabera, 15 baino ez dira interbentzioak burutu dituzten udalak. Berrir ere azpimarratu behar dugu hirigintza sail eta dagoen ezjakintasuna berdintasun sail eta sustaturiko hirigintza lanaren inguruan, are larriago, interbentzio horien eginbidea bera hirigintza sailaren beraren ardura denean.

Interbentzioak egin dituztela esan duten udalei, adibideak jartzeko eskatu zaie, alegia, esan dezatela zein hobekuntza lan egin diren. Jaso dena ez da noski zerrenda zehatz bat, baina bi gauzetarako balio du: batetik, azterlanek zein ondorio praktiko ekartzen dituzten ezagutu, eta bestetik erantzunen berehalakotasunagatik, galderak erantzun dituzten arduradunek, zein interbentzio jotzen dituzten garrantzikoentzat ezagutzeko. Aldi berean, Berdintasun sail eta lorturiko datuen kontrasterako balio dute erantzunek.

Hurrengo grafikoan jaso dira erantzunen artean gehien errepikatu diren interbentzio motak. Udalez udal jasotako erantzunak, Eranskineko fitxa indibidualetan kontsultatu daitezke.

Interbentzioak udalean




Beste galdera bat ere egin zaie interbentzio hauen inguruan. Jakin nahi genuen zein zen gutxi gora behera udalak haietara bideratutako gastua. Aurretiaz genekien datua ez zela jasotzen erraza, are gutxiago telefono bidezko galdeketa formatuarekin. Hori dela eta, eta lau erantzun baino jaso ez ditugunez, ez dugu aipamenik egingo (fitxetan daude datuak, dena den). Izan ere, lau datu soilekin ezin baita orokortasunik atera.

Genero ikuspegipeko azterlana egin dutela erantzun duten hirigintza sailtako arduradunei egin zaien azken galdera izan da, diru-laguntzarik egotekotan, udalak gai honetara bideratzen dituen baliabideak handituko liratekeela uste duten ala ez, eta hala izatekotan zertara zehazki uste duten bideratuko liratekeela.

Lehenengoaren gainean, erantzuna ia aho batekoa izan da. Egungo krisi egoeran, eta udalek duten finantziazio arazoarekin, diru-laguntzez hitz egitean denek dute harrera oso ona. Bi kasutan baino ez dira erantzuna ematera ausartu, erabakia politikoa izango delako argudioarekin.

Diru-laguntzekin inbertsioak handituko liratekeen



Bigarrenaren gainean, hona erantzunen adibide batzuk:

- Hirigintza planetan genero inpaktuak derrigorrez sartzen
- Orokorrean azterlanen ondorioz eratortzen diren lanak egiten
- Gaiaren inguruko lan sakonagoak/egunerapenak egiten
- Plan estrategikoak idazten
- Tunelak eta/edo lurrazpiko pasabideak hobetzen
- Auzo degradatuetan hobekuntzak egiten
- Oinezko ibilbideak egokitzen
- Espazio publikoetan ikuspegia oztopatzen duten elementuak kentzen
- Eskailera urbanoetan moldaketak egiten
- Irisgarritasuna hobetzen
- Argiztadura hobetzen
- Haurrentzako jolastokiak egokitzen
- Trenbide ingurueta ere eremuak hobetzen
- Emakume-etxerako ekipamenduak erosten
- Eta abar


Hirigintza eta generoaren inguruko azterlanik egin ez dutenei buruz

Azterlanik ez omen duten udaletako hirigintza sailtako arduradunei galdetu zaie ea horretarako espresuki sortutako diru-laguntzak izango balira, animatuko ote liratekeen

halako azterlan bati ekiteko. Noski erantzunak borondatea baino ez duela adierazten. Izan ere askok esan baitu diru-laguntzek gastuen ehuneko altu bat (osoa ez bada) ordaintzeko adinakoak behar luketela izan udalak halako lan bat egitea onartzeko.

Gainera, hirigintza ardurak dituzten pertsonak diote, azkenean erabaki politikoa izango dela halako lan bati ekitea ala ez. Horrexegatik, batzuen erantzuna “ez dakit” izan da. Dena den, esanguratsua da, bi udaletan ezezko borobila eman dutela erantzun gisa. Antza, udal horien finantza egoera hain da txarra, ez dutela inolako inbertsiorik aurreikusten epe motzera begira. Hona emaitzak:

Diruz lagundu ezkerro, azterlanak egingo lituzkete?




Erantzunen arabera, ondorio garbi bat atera daiteke, eta da udal guztietan badela nolabaiteko sentsibilizazioa gai honi buruz, eta baita azterlanak egiteko borondatea ere. Agian, baliabideak dira falta direnak, eta gabezia hori asetzeko diru-laguntzen existentzia oso ona izan daiteke.

Dena dela, eta pisu berdinez azpimarratu behar da, erantzun positibo hau eman dutenen artean badirela jadanik hirigintza eta generoaren inguruko azterlanak eginda dituzten udaletako hirigintza sailtako arduradunak ere. Diru-laguntza ideia oso ona iruditzen zaie, baina ez dakite jadanik egina duten lan batetarako litzatekeela.

Azkenik, hirigintza sailetatik udalaren baitako berdintasun sailekin duten harremanen ohikotasunari buruz galdetu zaie. Ustea zen, harreman horiek ohikoak izan ezkerro, eta nahiz eta azterlan zehatzik ez izan, hiri egitura eta espazio publikoen izaerek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatze alderako interbentzioak erraztuko zituela. Dena den, erantzunak ez dira oso itxaropentsuak izan.

Udalen ia bi bosten bakarrik izan dira harremana ohikoa dela esan dutenak (%38,98). Gainerakoak harreman estu horren falta agerian utzi dute. Orokorrean, udal txikienetan, harreman hori estuagoa da handienetan baino. Langile gutxiago izanda, harremana ohiko eta estuagoa dela diote. Dena den, hirigintza sailtan berdintasun sailekiko duten harremana ohikoagoa dela uste dutela esan dezakegu alderantziz baino.

Berdintasun sailarekin ohiko harremanak



Datuak erkatuta lorturikoak


Aurreko azpi-ataletan ikusi dugu nola sail ezberdinetan, galera berdinei erantzun ezberdinak eman zaizkien kasu hainbatetan. Hori dela eta, datuak ez dira berdinak batari zein besteari gagozkiola. Erantzunak desberdinak izateak berak, badu bere irakurketa propioa, azken ondorioetan plazaratuko dena, eta ondorio ia garrantzitsuenetakoa izatera eramango duena. Baina kontraesanak horiek gainditze aldera, datu-basean bateko zein besteko erantzunak hartu, eta elkarren artean erkatu ditugu, ahal den heinean, erantzun bateratu bat emateko.

Azpi-atal honetan aurkeztuko dira datu erkatu horien ondorioz eratorri diren emaitzak.

Lau dira sail bietara egin diren galdera berberak, eta lau erantzun horiexek dira erkatu ditzakegunak. Bat udal guztiei egin zaiena, beste bat azterlanak burutuak dituzten udalei soilik egin zaiena, eta beste biak, azterlanik egin ez dutela diotenei soilik egin zaizkienak. Hain zuzen ere:

- 1) Udalean hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat egin ote denari buruzkoa.
- 2) Balizko azterlan horien ondorioz hobekuntza lan edo interbentziorik egin ote denari buruzkoa.
- 3) Diru-laguntzarik balego, Udala halako azterlanen bat egitera animatuko ote litzatekeenari buruzkoa.
- 4) Hirigintza eta Berdintasun sailen arteko harremanaren ohikotasunari buruzkoa.

Lehenengo galderari gagozkiola, hurrengo grafikoak ematen du sailen artean lortu diren emaitzen berri:




Erantzunen arteko aldea argiago ikusteko, hona bi sailetan emandako erantzunen aldeak adierazten dituen taula:


Berdintasun sailak	Hirigintza Sailak	Erantzun kopurua
Bai	Bai	25
Bai	Ez	13
Ez	Bai	3
Ez	Ez	46
Ez daki	Bai	1

Erantzun kuantitatiboekin soilik, ezin jakin nork dion egia eta nork ez, edo nork benetan jakin gabe erantzuten duen. Baina galdera irekiak aukera ematen du kualitatiboki jakiteko erantzun kuantitatiboa zein den.

Hala, eta eskatzen ziren azterlanei buruzko datu osagarrirei esker, jakin dezakegu berdintasun sailetan jasotako baiezkotza benetakoa dela. Era berean, eta berdintasun sailekoek ezetz esan arren hirigintzakoek baietz diotenen artean, jakin dezakegu bik arrazoiz diotela. Guztira hortaz, 40 udalek edukiko lukete jadanik eginda (edo une honetan bertan egiten) hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat. Zalanbiza bakarra, kontrasterako daturik ez izanagatik, berdintasun sailetik erantzunik eman ez duen udalarena da. Dena dela, baiezkotzat jo dezakegu, erantzun duen sailak halaxe diolako. Hortaz, EAEko hirigintza eta generoaren arloko azterlanen mapa behinbetikoa hauxe litzateke (horiz ez dutenak, berdez badutenak):




Azterlana egina duten udalak




Datuak erkatuta, 41 dira hortaz hirigintza eta generoaren inguruko azterlanen bat egina duten EAEko 3.000 biztanletik gorako udalerriak (%46,59 hain zuzen ere). Alegia, udalen erdiak baino gutxiagok du eginda halako azterlan bat.

Azterlan kopurua udalen taminaren arabera




Datuak ikusita, erraz ondorioztatu dezakegu EAEko udalerrri nagusiek, batik bat 25.000 biztanletik gorakoek, badituztela halako azterlanak eginda. Azterlan kopurua ia erdira jaisten da 15.000-25.000 biztanle arteko udaletan, eta herenera 10.000-15.000 biztanle artekoetan. Kuriosoki, 5.000-10.000 biztanle artekoetan, berriro igotzen da, eta udalen %42,86ak egin du halako azterlanen bat. Aldiz, galdetutako udalik txikienetan, azterlanen kopurua ia anekdotikoa da.

Bigarren galderari gagozkiola, hurrengo grafikoak ematen du egindako interbentzioei buruz, sailen artean lortu diren emaitzen berri. Kontutan izan behar dugu, interbentzioak egin ote direnari buruzko galdera, azterlana jadanik egin zutela erantzuten zuten udal arduradunei soilik egin zaiela. Esan nahi da, udal askotan, azterlana izan arren, dagokion saileko arduradunak bere existentziak ez zekielako, hari ez zaiola interbentzioei buruzko galderarik egin. Horrexegatik dira aldeak hain handiak:




Kasu honetan, aurrekoan baino erantzunen konbinazioa handiagoa denez, beste irizpide baten gain aterako ditugu behin-betiko datuak: efektiboki hirigintza eta generoaren inguruko azterlana egin dutela erabaki dugun 41 udalerrietako bi sailletako galdeketaren erantzunetako batek interbentzioak egin direla esatea nahikotzat hartuko dugu hala egin dela onartzeko. Irizpide honekin, udalen %60,98ak interbentzioak egin dituela ondorioztatu dezakegu.

Interbentziorik egin ote den




Hirugarren galderari gagozkiola, hurrengo grafikoak ematen du sailen artean lortu diren emaitzen berri. Gogoratu galdera hau azterlanik egin gabe dutela erantzun duten udalei soilik egin zaiela (nahiz eta benetan egina izan dezaketen):



Galdera honek (diru-laguntzak izatekotan udalak azterlanak egitera animatuko ote liratekeenari buruzkoak) ez du erantzun zuzen ala okerrik. Galdeketa erantzun duten arduradunei, beraien inpresioari buruz galdetu zitzaien, eta goiko grafikoak argi adierazten du zein den emaitza kualitatiboa: interesa oso handia da halako diru-laguntzengan.

Laugarren galderari (sailen arteko elkarlanari buruzkoa) buruz azkenik, hurrengo grafikoak ematen du sailen artean lortu diren emaitzen berri. Gogoratu galdera hau ere azterlanik egin gabe dutela erantzun duten udalei soilik egin zaiela (nahiz eta benetan egina izan dezaketen):



Es evidente que queda mucho trabajo por hacer para mejorar las relaciones entre los dos departamentos.

Ondorioak

Azken atal honetan, lanaren ondorio nagusienak plazaratuko dira, batetik aztertu den gaiaren inguruko ideia garbiago bat izateko helburuarekin, eta bestetik Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saila deitzearen diru-laguntzen definizioarako lagungarri izateko helburuarekin.

- 1) Gaia ez da berria Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerrientzat. Dezente dira dagoeneko beraien udalerrietan genero ikuspegipeko hirigintza azterlanak sustatu eta burutu dituzten udalak.

Izan ere, Autonomia Erkidegoko Udal gehientsuenek, bai indibidualki, baita era mankomunatuan ere, Berdintasun Planak idatzi eta garatu dituzte. Badira lan honetan hamarkada bat baino gehiago daramatzaten udalak ere, eta dagoeneko hirugarren berdintasun planarekin ari direnak. Plan horietan guztietan, beti jaso ohi da hirigintzaren gaia, emakumeek gure herri eta hirietako espazio publikoak nola bizi eta erabiltzen dituzten ikusita. Ez da soilik pertsonen arazo soil bat, ez eta genero baten arazoa ere. Gizarte osoaren arazoa da, gure hiri eta herriak berdintasunez eta era askean erabili eta gozatzeko aukera ezabatzen baitio gure gizarteko zati handi bati.

Orokorrean, eta aurreko atalean ikusi ditugun datuak, eta Eranskinean jasota dauden fitxetan ikus daitekeenez, gaiaren gaineko kontzientzia maila eta sentsibilizazioa handia da gure udaletan. Ezin uka daiteke oraindik badela errealitate honekin bat egiten ez duenik (jaso dira “hirigintzak ez du generorik”, edo “nik ez dut ulertzen zer den gizartearen zati batentzako hirigintza” bezalako erantzunak), eta larria bada ere haiek hiriaren egikaritzarako garaian duten ardura handia ikusita halako iritzien jabe izatea, ezin dezakegu esan jarrera orokorra hori denik. Alderantziz.

Kontzientzia eta sentsibilizazioa baditugunez, baliabideen eta teknikarien garaia da. Hirigintzaren kerak aldatu behar dira, orain artean egin diren akatsak aurrerantzean saihestuz, eta herritarrei beraien ingurune urbanoaren nolakotasuna erabakitzerako garaian parte hartzeko aukera eskaintzeaz gain, horretarako gaitu, eta sustatu egin behar zaie. Prozesu berri honetan, teknikariek ardura handia dute. Eta hirigintza eta generoaren inguruan egiten diren azterlanek erakutsi dute halako lan parte-hartzaileak aurrera eramateko modu egokia izan daitezkeela, behintzat diagnostiko mailan.

- 2) Aipatu dugu genero ikuspegipeko hirigintza azterlanek badutela jadanik Euskal Autonomia Erkidegoan ibilbide garrantzitsu bat eginda. Kasu askotan gainera, azterlan horien ondorioz hiri eta herrietako espazio publikoen egitura integratzaileago eta berdina baten aldeko interbentzio eta esku-hartzeak burutu dira. Are gehiago, udalen batek bota du dagoeneko beraien amaitutzat ematen dutela egindako azterlanean jasotako arazoen konponketa.

Ikusi beharrekoa da ordea, hoberako izan diren interbentzio horien ondorioz, hiria berdintasunez bizi ote daitekeen benetan egunerokotasunean. Denok dakigu hiri fisikoak ez dituela gizarte gisa ditugun arazo eta beldurrak gailenduko, baina aldi berean denok dakigu hiri fisikoak arazo eta beldur horiei aurre egingo dien gizarte-ehunak sortu eta garatzeko aukera eskaintzen duela.

Ezin mugatu gaitezke (eta ez zaio hemendik garrantzirik batere kendu nahi) interbentzio xumeetara, puntu zehatzetan atzeman diren arazoak konpontzeko. Izan ere, askotan gertatzen baita arazo bat konpontzen dugunerako beste bi sortuak izatea. Genero ikuspegiak, beste ikuspegi bat gehiago izan behar du hiria diseinatzeko hasten garen une beretik, gero haren egikaritzea egokia izango bada. Eta asko izan dira zentzu honetan galdeketaaren aurrean hitz egin duten ahotsak. Hitz eta prozedura ezberdinak

erabili dira: genero inpaktuak exijitzea, hiri-planeamendua egin aurreko diagnosien parte izatea, eta abar. Baina azken batean, hiriaren kontzepzioaren une beretik, diseinatzaileak soinean eramango duen ideia bat behar izan behar da, gero haren garapenaren ardura dutenek bermatuko duten ideia.

- 3) Aurrekoei lotuta, ideia zaharren gainean jadanik eraiki ditugun herri eta hirietako arazoak konpontze aldera, ezin barkatuzkoa dena da halako azterlanak egin eta tiraderetan ahaztuta geratzea.

Galdetegiaren ondorioz argi geratu da udaletako Berdintasun eta Hirigintza sailen artean dagoen "haustura", gai honi dagokionean behintzat. Agian haserako akatsa da halako lanak Berdintasun sailen ekimen hutsaz egin izana. Baina ezin gerta daiteke hiriaren diagnostiko lanak egin, herritarrek parte-hartzera deitu, eta gaia bere horretan geratzea. Are gutxiago, hirigintzako egunerokotasunean ardurak dituzten pertsonek ezagutu ere ez egitea.

Elkarriketatu diren berdintasun arduradunetarik askok plazaratu du iritzi hauxe bera. Nolabait, eta ezjakituriagatik gehienbat, behin azterlanak osatuta, harekin zer egin jakin gabe geratzen direla. Nolabait ere, azterlan horiek bukatu osterako prozedura edo mekanismoak falta dira, arrakastatsuak izatea nahi badugu behintzat.

Teknikariak beraiek dira sailen arteko zeharkako lanaren kontzeptua gehien aipatzen dutenak, eta esperientziak ere izaten hasiak direla onartzen dute aspektu honetan.

- 4) Egungo krisi egoerak itota dauzka udalak. Finantza baliabideak lortzeko arazo handiak dituzte, eta badira datozen urteetarako inbertsioen iturria itxi dutenak ere. Hori dela eta, diru-laguntza sortzearen ideia primerakoa iruditu zaie orokorrean. Hori bai, dirua probetxugarri izan dadin, kostuen ehuneko altu bati aurre egiteko modukoa izan beharko lukeela uste dute, gainerakoan udalek dirua eskatu bai, baina kopuruaren eskasa ikusita, gero ezer egingo ez dutelakoan baitaude.

Illo honetatik bertatik, beste kezka bat da tamaina ertain eta txikietako udalena. Handienen finantza egoera txarra bada, txikienak are okerrago daude, eta dituzten giza baliabideak eta materialak askoz ere murriztagoak izanik, hipotekatuak sentitzen dira halako ekimen berriei aurrera eramaterako garaian. Zenbaitek mankomunitateen inizatiba falta salatu du.

- 5) Batik bat hirigintzako teknikarien artean entzun den beste iritzi bat da gai honen inguruan dauden irizpide teknikoek gabezia edo eskasia. Agian busti nahi ez duenaren argudioa izan daiteke, bilatzen duenak aurkitzen ohi baitu, baina gaiaren inguruko difusio teknikorako ekimenak ongi leudeke (datorren hileko mintegia, kasu).
- 6) Zalantza dago jadanik dauden baliabideen aprobeitxamenduaren inguruan. Adibidez, Aholkularitza Kontseilu ugari daude eratuta, baina legearen ondorioz eratu direnez, legeak ematen dieten eskumenetara mugatzen dira ia eskusiboki. Bestalde, nork uler dezake herritarren parte-hartzea artikulatzera datorren erakunde batek dozena erdi kide izatea, politikariak barne, adibidez?
- 7) Emakundek diru-laguntzak eskaintzen ditu baita ere hirigintza eta generoaren inguruko azterlanak egiteko. Udal askok baliatu du laguntza hori lana egiterako garaian. Baliabideak ahalik eta egokien banatze aldera, agian hobea litzateke diru-iturrien bikoiztasuna ekiditea.

- 8) Jaso diren erantzunen bidez jakin ahal izan da, une honetantxe ari direla udal asko beraien Hiri Planeamenduak berrikusteko lanetan. Une egokia litzateke halako lanak planeamenduaren baitan jasotzeko, nahiz eta horretarako borondatea beste mekanismorik ez dagoen.
- 9) Alde positiboan, udal ugariren erantzunetan ikusi da udalen baitan, eta gehienbat berdintasun saileko arduradunen eskutik, genero ikuspegia udaletako gainerako sailetan nola txertatu lantzen ari direla. Formazio saioak, ikastaroak, hitzaldiak, eta abar, nahiko zabalduak daude une honeta.

Bilbon, 2011ko urrian

Egilea: *Gentzane Goikuria Irigoien*
Laguntzailea: *Aitor Jauregi Larrañaga*

Eranskina: udaletako hainbat datu

Azterlana eginda duten udalerrien zerrenda

1	BILBAO
2	VITORIA-GASTEIZ
3	DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
4	BARAKALDO
5	GETXO
6	IRUN
7	PORTUGALETE
8	SANTURTZI
9	BASAURI
10	ERRETERIA
11	LEIOA
12	GALDAKAO
13	SESTAO
14	DURANGO
15	EIBAR
16	ERANDIO
17	ZARAUTZ
18	HERNANI
19	LAUDIO / LLODIO
20	TOLOSA
21	MUNGIA
22	GERNIKA-LUMO
23	ERMUA
24	SOPELANA (mankomunatua)
25	ARRIGORRIAGA
26	ELGOIBAR
27	ZUMARRAGA
28	ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA
29	ONDARROA
30	LEKEITIO
31	MUSKIZ
32	ABADIÑO
33	ELORRIO
34	URRETXU
35	BERANGO (mankomunatua)
36	ARETXABALETA (oraintxe ari dira egiten)
37	GORLIZ (mankomunatua)
38	DEBA
39	MUTRIKU
40	PLENTZIA (mankomunatua)
41	URDULIZ (mankomunatua)

Azterlanen izen hainbat

BILBAO	"Hiri debekatuaren mapa"
VITORIA-GASTEIZ	"Gasteizko udaleko tokiko segurtasun diagnostikoa"
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	"Hiri debekatuaren mapa"
GETXO	"Hiri debekatuaren mapa"
IRUN	"Irungo hiri debekatuaren mapa"
PORTUGALETE	"Portugaleteko hiri-diagnostikoa genero ikuspegitik"
SANTURTZI	"Hiri-analisia genero ikuspegitik: segurtasun mapa"
BASAURI	"Hiri debekatuaren mapa" (2003) eta "Basauriko emakumeen aztarnak" (2011)
ERRETERIA	"Emakumeak eta hiria, gure hiri espazioari buruzko gogoetak"
LEIOA	"Leioako hiri-seguratsun eta errepresentazio sinbolikoaren diagnostikoa, genero ikuspegitik"
GALDAKAO	"Hiri debekatuaren mapa"
DURANGO	"Hiri debekatuaren mapa"
EIBAR	"Eibarko hirigintzaren azterketa genero ikuspuntutik"
ERANDIO	"Erandioko hiri-diagnostikoa 2009"
ZARAUTZ	"Emakume eta gizonen berdintasun diagnostikoa"
HERNANI	"Jendetze lanak"
LAUDIO / LLODIO	"Neskateka"
TOLOSA	"Kaleak berdintzen"
MUNGIA	"Emakumeak eta hirigintza. Jardunaldiak"
GERNIKA-LUMO	"Gernika-Lumoko herriaren mapa emakumeen ikuspuntutik"
ERMUA	"Ermuko hiri debekatuaren mapa"
SOPELANA	"EMUK"
ARRIGORRIAGA	"Arrigorriagako hiri-diagnostikoa genero ikuspegitik"
ELGOIBAR	"Elgoibarko hirigintza diagnostikoa genero ikuspegitik"
ZUMARRAGA	"Hiri debekatuaren mapa"
ABANTO ZIERBENA	"Genero ikuspegitik, hiri-diagnostikoa"
ONDARROA	"Hiri debekatuaren mapa" (2003) eta "Ondarroako emakumeen aztarnen mapa" (2010)
LEKEITIO	"Hiri debekatuaren mapa"
MUSKIZ	"Hiri debekatuaren mapa"
ABADIÑO	"Abadiñoako espazio publikoaren eguneroko bizitzaren analisia genero ikuspegitik"
ELORRIO	"Hiri debekatuaren mapa"
URRETXU	"Urretxuko egunerokotasunaren mapa"
BERANGO	"EMUK"
ARETXABALETA	"Aretxabaletako hirigintza analisia genero ikuspegitik"
GORLIZ	"EMUK"
DEBA	"Genero ikuspegitik hirigintza analisia"
PLENTZIA	"EMUK"
URDULIZ	"EMUK"

Azken azterlanak noizkoak dira?

Municipio	Año
BILBAO	2006
VITORIA-GASTEIZ	2011
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	2006
GETXO	2009
IRUN	2011
PORTUGALETE	2011
SANTURTZI	2008
BASAURI	2011
ERRETERIA	2003
LEIOA	2009
GALDAKAO	2006
DURANGO	2009
EIBAR	2009
ERANDIO	2009
ZARAUTZ	2008
HERNANI	2008
LAUDIO / LLODIO	2009
TOLOSA	2010
MUNGIA	2009
GERNIKA-LUMO	2011
ERMUA	2002
SOPELANA	2009
ARRIGORRIAGA	2008
ELGOIBAR	2009
ZUMARRAGA	2009
ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA	2010
ONDARROA	2010
LEKEITIO	2009
MUSKIZ	2010
ABADIÑO	2010
ELORRIO	2009
URRETXU	2011
BERANGO	2009
ARETXABALETA	2012
GORLIZ	2009
DEBA	2009
PLENTZIA	2009
URDULIZ	2009

Azterlanak nork eginak dira?

VITORIA-GASTEIZ	Red Quorum y GEA21
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	Plazandreok
GETXO	Hiria Kolektiboa
IRUN	Murgibe
PORTUGALETE	El propio Ayuntamiento
SANTURTZI	Murgibe
BASAURI	Zaida Fernandez
ERRETERIA	Klara Perez Wolfran
LEIOA	Murgibe
GALDAKAO	GITE-IPES
EIBAR	Hiria Kolektiboa
ERANDIO	EMARI
ZARAUTZ	Fondo Formación Euskadi
HERNANI	Hiria Kolektiboa
LAUDIO / LLODIO	Funky Projects
TOLOSA	Hiria Kolektiboa
MUNGIA	El propio Ayuntamiento
GERNIKA-LUMO	El propio servicio
ERMUA	Hiria Kolektiboa
SOPELANA	Hiria Kolektiboa
ARRIGORRIAGA	FARAPI
ELGOIBAR	Murgibe
ZUMARRAGA	Ados Consulting
ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA	Murgibe
ONDARROA	Zaida Fernandez (2010)
LEKEITIO	Murgibe
MUSKIZ	Ados Consulting
ABADIÑO	Hiria Kolektiboa
ELORRIO	GEA21
URRETXU	Hiria Kolektiboa
BERANGO	Hiria Kolektiboa
ARETXABALETA	Daiteke
GORLIZ	Hiria Kolektiboa
DEBA	Murgibe
PLENTZIA	Hiria Kolektiboa
URDULIZ	Hiria Kolektiboa

Azterlanen ondorioz interbentzioak egin dituzten udalak

BILBAO
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
BARAKALDO
GETXO
PORTUGALETE
SANTURTZI
BASAURI
LEIOA
GALDAKAO
SESTAO
DURANGO
EIBAR
ERANDIO
HERNANI
LAUDIO / LLODIO
MUNGIA
ERMUA
SOPELANA
ELGOIBAR
ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA
LEKEITIO
BERANGO
MUTRIKU
PLENTZIA
URDULIZ

Hirigintzako Aholkularitza Kontseilua osatuta duten udalak eta osatu zen urtea

BILBAO (2008)	MUNGIA (2010)
VITORIA-GASTEIZ (2007)	HONDARRIBIA (2009)
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN (2007)	ERMUA (2008)
BARAKALDO (2009)	PASAIA (2007)
GETXO (2007)	ANDOAIN (2007)
IRUN (2008)	BERGARA (2007)
PORTUGALETE (2007)	AZPEITIA (2009)
SANTURTZI (2008)	BEASAIN (2009)
BASAURI (2008)	ARRIGORRIAGA (2008)
ERRENTERIA (2008)	VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN (2007)
LEIOA (2010)	AZKOITIA (2007)
GALDAKAO (2010)	ELGOIBAR (2009)
SESTAO (2009)	OÑATI (2009)
DURANGO (2007)	AMURRIO (2007)
EIBAR (2010)	ZUMARRAGA (2007)
ERANDIO (2010)	OIARTZUN (2007)
ZARAUTZ (2007)	ORDIZIA (2007)
ARRASATE / MONDRAGÓN (2009)	ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA (2008)
HERNANI (2009)	ETXEBARRI (2007)
LAUDIO / LLODIO (2007)	ONDARROA (2010)
TOLOSA (2007)	LEKEITIO (2010)
LASARTE-ORIA (?)	ABADIÑO (2008)
BERMEO (2008)	ELORRIO (?)

Kontseiluetako emakume kopurua

BILBAO	2/19
VITORIA-GASTEIZ	4/25
BARAKALDO	5/19
GETXO	3/13
IRUN	14/29
PORTUGALETE	2/7
SANTURTZI	8/20
BASAURI	5/10
GALDAKAO	4/9
SESTAO	6/12
EIBAR	3/8
ERANDIO	5/12
ZARAUTZ	3/14
ARRASATE / MONDRAGÓN	8/16
HERNANI	8/15
LAUDIO / LLODIO	3/13
BERMEO	2/10
ERMUA	6/19
PASAIA	20/40
ANDOAIN	2/8
BEASAIN	3/8
ARRIGORRIAGA	6/17
ELGOIBAR	15/35
OÑATI	5/14
AMURRIO	1/5
ZUMARRAGA	1/8
OIARTZUN	6/34
ONDARROA	2/7
LEKEITIO	3/6

Emakume elkarteetako ordezkariak kontseiluetan

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
BARAKALDO
GETXO
IRUN
SANTURTZI
BASAURI
ERRETERIA
LEIOA
GALDAKAO
DURANGO
ARRASATE / MONDRAGÓN
HERNANI
LAUDIO / LLODIO
MUNGIA
HONDARRIBIA
ERMUA
PASAIA
BEASAIN
ARRIGORRIAGA
ORDIZIA
ABADIÑO

Hirigintza eta generoaren gaia tratatu duten kontseiluak

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
DURANGO
ERMUA
BERGARA
AMURRIO
ELORRIO

Gaiaren inguruan zer bait egitea erabaki duten kontseiluak

ERMUA
ELORRIO

Zer egitea erabaki duten

- Gaiaren inguruko jardunaldiak antolatzea.
- Hiri debekatuaren mapa udalaren Plan Orokorrean jasotzea.

